

BEZEROEKIN HARREMANA

GAIU enpresaren oinarrietako bat da bezeroekin harreman **egokia, apala eta estua** izatea. Horretarako; harreman **zuzena** izaten saiatuko gara beraiekin. Gure helburua beraien nahiak eta beharrak asetzea delako, eta beraien kritika eraikitzaileen eta proposamenen bidez lan egin eta hobetu nahi dugulako.

Guzti hau lortzeko; beharrezkoa ikusten dugu bezero eta erosleei **inkesta edota elkarrizketa bidez** entzutea, beraien iritziak kontutan hartzen direla beraiek ere ikus dezaten. Azken finean; gure produktuekin gustura eta eroso egotea nahi dugu, eta beraien ingurukoei gure inguruan hitz onak erabiltzea.



Bezeroak ere gure proiektuaren kide garrantzitsu eta ezinbesteko direla sentitzea nahi dugu, eta beraiek gabe gu ez garela ezer jakitea.

Aurreko ataletan aipatu bezala; **web orriaren bitartez edo azoketan** harremanduko gara gehien bat bezeroekin. Azoketan; zuzeneko harremana izatea nahi dugu, beraiek gu ere ezagutu gaitzaten eta ahoz gure helburuak eta nahiak entzun ditzaten. Baita beraien momentuko zalantzak argitu ere.

Aldi berean; web orriaren bitartez ere gurekin harremanetan jartzeko aukera izango dute zerbait nahi izanez gero. Beraz; teknologia berriak erabiliko ditugu harreman zuzen hori bideratzeko.

Esan beharra dago; **produktuak banatzera gu geu joango garela pertsonalki**, batez ere hasieran. Horrela, gure bezeroak ezagutu eta gu nondik ezagutu

gaituzten jakiteko aukera izango dugu. Aukera hau; lan kargak baimentzen duen bitartean egingo dugu, irteerak txandakatuz.

Orokorrean; esan bezala, harreman estua mantendu nahi dugu bezeroekin. Beraiek ere gustura sentitu daitezen eta aldi berean, familia txiki bat osatzen joan arte.